



TEATRO  
ARRIAGA  
ANTZOKIA

## Bilbao Orkestra Sinfonikoak, Jordi Brau eta Luis Posada aktore bikoiztaileekin batera, soinu bandei eskainitako kontzertua emango du, Hollywoodeko izarren ahotsekin

- Ikusleek *De película* bihar ostegunean ikusi ahalko dute Arriagan, azaroaren 21ean alegia, arratsaldeko 19:30ean, Bilbao Orkestra Sinfonikoaren eta Arriaga Antzokiaren lankidetzari esker.

**Bilbon, 2019ko azaroaren 20an.**- Bilbao Orkestra Sinfonikoa (BOS) eta Arriaga Antzokia elkarlanean aritzearen ondorioz iritsiko da adin guztiei zuzendutako *De película* zinemako musika ikuskizuna, ezinbesteko bezain "ikusezinak" diren bi elementuk osatzen dutena: musika eta pertsonaien ahotsak. Aktore bikoiztaileen (**Jordi Brau eta Luis Posada**) laguntzari esker, Hollywoodeko aktoreek kontzertu horretan parte hartu ahal izango dute bihar ostegunean, azaroaren 21ean, arratsaldeko 19:30etik aurrera Arriaga Antzokian.

Jordi Brau izen famatuaren bikoiztailea da, besteak beste Sean Penn, Nicolas Cage, Kenneth Branagh, Dennis Quaid, Roben Williams, Tom Cruise, Daniel Day-Lewis eta Tom Hanks aktoreena. Luís Posadaren ahotsak ere antzezle handiak interpretatu ohi ditu, hala nola Johnny Depp, Jim Carrey, Adrien Brody, John Cusack edota Leonardo Di Caprio.

**Ruben Gimeno** maisuaren gidaritzapean izango den **Bilbao Orkestra Sinfonikoaren** (BOS) eskutik joango den interpretazio musikala aktoreen ahotsen efektu oroitarazleaz konbinatuz, eta irudien proiektzioak lagunduta, "La máscara", "El discurso del rey", "Forrest Gump" edota "Misión Imposible" bezalako filmetara eramango gaituzte, beste askoren artean.

### **ARRIAGA ANTZOKIRAKO SARRERAK**

- 10,50 eta 27 euro artean (beherapenekin)
- Salgai [www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus) helbidean, 946 850 850 telefonoaren bidez eta antzokiko leihatilan, alde zuzeneko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:  
Komunikazioa – ARRIAGA ANTZOKIA  
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307  
[comunicacion@teatroarriaga.eus](mailto:comunicacion@teatroarriaga.eus)  
[www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus)